

BERO BERO EGOTeko BEROKIAK

Gizakiok ez dugu gorputz osoa estaltzen digun ile luzerik edo luma sendorik, guztiz beharrezkoa dugu beraz arropa.

Ikasleek ingurune eta egoera ezberdinak ikusi eta zelako arropa erabiliko duten esan, jantzi edo marrastu beharko dute.

Materialak

- Ikasleek ekarri ahal dituzten arropa ezberdinak (bufanda, txapelak, eguzkitako betaurrekoak, eskularruak...).
- Irudi sorta.

Prozedura

Ikasleek zirkulu bat egingo dute eta erdian arropa guztia bilduko dute

Irakasleak irudi bat aterako du eta irudi horretan agertzen den egoeran ikasleek erabiliko duten arropa mota aukeratu beharko dute.









Eztabaida

- Gaur ekarri duzun arropa bat al dator dagoen eguraldiarekin?
- Afrikako basamortuan eta Australiakoan berdin janzten ote da gizakia? Zergatik?
- Gaur egun geuk janzten dugun arropa, soilik klimaren araberakoa al da? Ba al dago arropa mota bat edo bestea janztera eragiten dizun beste zerbaiz?